



Marina Suarez Ortiz de Zarate. Jaizki FONTANEDA | FOKU

infraganti

MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE

Umetatik argi zuen artista izan nahi zuela. Arte ikasketak bukatuta, antzerki eta dantza mundura sartu zen, eta duela urtebete mundu plastikoa berreskuratu zuen. Artista gasteiztarraren mundu horren lagin bat, mundua ikusteko bere prismaren isla dena, Gasteizko Artgia sorgunean ikusgai dagoen «Txiribita» erakusketa da.

Lehenengo erakusketa du bakarka. Apiril osoan dago “Txiribita” Artgia sorgunean ikusgai. Bertan hitz egin du GAUR8k Marina Suarez Ortiz de Zaraterekin, artista

gasteiztarra Madrilera itzuli baino lehen, arte eszeniko eta bisualen master bat egiten ari baita han.

Badira sei urte Arte Ederren ikasketak bukatu eta antzerkiaren, dantzaren eta performacearen munduan murgildu ze-

la, Baratzza aretoaren eskutik. Han jarraitzen du oraindik ere, hamaika zereginetan, diseinu eta web kontuetan, programazioa eta antolaketan, baita Baratzako antzerki konpainian ere. Dioenez, behar handia zuen oraingo proiektu honi heltzeko, mundu plastikoa erabat baztertuta baitzeukan. Mundu plastikoa berreskuratzea «plazer itzela» izan da.

“Txiribita” proiektua duela urtebete hasi zen. Artgia sorguneak artista sortuberriak bul-tzatzeke ematen dituen beketa-ko bat jaso izanak, erakusketaz gain, beste ekintza batzuk ere egiteko aukera eman zion Marinari, hiru faseko prozesua garatzeko laguntza baita.

Orain artean Marinaren ibilbide artistikoa kolaboratzaile gisakoa izan da nolabait, eta hau bide pertsonalagoa da. Esker oneko ageri da Irantzu Lekue Artgiako arduradunarekin. «Sekulako aukera izan da», dio, «jendearekin lan egitea erraza izan da, oso gogoko baitut, baina uste dut bakarrik lan egitea ere beharrezkoa nuela».

SOINU-PAISAIA

Proiektua nola otu zitzaion kontatu digu. «Intuizioz», Virginia Woolfen “Orlando” nobelako pasarte bat hartu zuen, oso gustuko duena. Orlando, 300 urtez gizona izan dena, zazpi egun lo eman ditu eta esnatu denean, emakumea da. Lo egon den zazpi egun horiek ardatz hartu zituen Marinak, eta tarte horretan, ametsen edo inkontzientearen munduan, zer gerta daitekeen pentsatu zuen. «Pasarte hori, ideia hori, irudi horiek egon dira etengabe prozesuan». Hala ere, ez dio hori amets bat dela edo horren irudikapena dela, zerbait sortzeko motorra baizik, abiapuntua, eta prozesuan zehar hainbat leiho eta ate ireki direla.

Lehenengo fasean, proiektua kalera atera behar zuen. «Kaleko ekintza proiektuaren pieza bat izan zen, askoz performatiboagoa», dio. Bidaia bat eskaintzen zuen, berak eraikitako soinu-paisaia. Hamaka bat atera zuen, bertan jendea eseri, solariumeko betaurrekoak eta kasakoak jarrita, eta audio bat entzuteko, Marinak ondoan aldezturik grabatutako soinuak ordenagailuarekin, zuzenean, «DJ batek moduan», nahasten zituen bitartean. Hamar minutuko saioak ziren, eta horietatik dator erakusketa plastikoa osagai den soinu-paisaia. Askotako erantzunak jaso zituen bidaia sentsozial haietan parte hartu zuten lagunengandik: beldurretik atsegineraino. Oso soinu abstraktuak dira. Hitz batzuk daude, zentzurik gabekoak, mundu ilogiko batetik datozen soinuak dira nolabait. Hala ere, ez dela mundu irrealia dio. Ekintza horretan islatu zuen inkontzientearen inguruko jakinmina. Bidaia inkontziente horren oinarrian galdera bat zegoen: eserita, dena ahaztu eta gure inkontzienteak arreta guztia hartu eta gorputza ahazten dugun momentuak zeintzuk dira? Ametsak, batez ere.

HONDAKINETATIK ERAIKI

Gero tailerreko lanean hasi zen, materialak probatzen, logika bat bilatzen, eta mundu material horretan gero eta gusturago sentitzen hasi zen, materialak elkartu eta manipulatzeko. Mundu material hori estudioan zuen eskultura «narras» batetik sortu zen, aberatsen etxe batean egon zen diskobolo batetik, hain zuzen. Mailu batekin txikitu egin zuen eta haren hondakinetatik zenbait mundu berri eta fantasia sortzen hasi zen, hondakin horiek eta bildutako beste material batzuk harremanetan jarriz.



Eseri, entzun, ikusi edo lanen artean paseatzeko aukera eskaintzen du «Txiribita» erakusketak. Jaizki FONTANEDA | FOKU

Azaroan erakusketa kolektibo bat egin zuen Artgia aretoan bertan, Sara Berasalucerekin eta Beatriz Peralesekin batera. Oraingo erakusketaren parte handiena tailerrean zuen orduan, etengabe aldatzen, artean apirileko honetarako zer egin behar zuen argi ikusi gabe. Eta erakusketa zabaldu baino lehen hiru egunez egon zen gauzak mugitzen, bakoitzak halako espazioan zer zentzu zuen jakiteko. «Norbaitek zerbait nonbait kokatu behar dueneko momentua imajinatzen dut, zentzu estetikoaren bila. Guztiok dekoratzen dugu, denok jartzen ditugu gauzak espazioetan, batez ere etxean, eta ekintza estetiko hori mundu bat da bakoitzarentzat», azaldu du. Koadro baten konposizioa bezala, baina espazioa tridi-

mentSIONALA izanda, ekintza konplexuagoa iruditzen zaio.

TXIRIBITAK

Marinaren txiribitak «une batez agertzen diren dirdira harrapaezina» dira. Iru-di hori erabili du «Txiribita» erakusketa izendatzeko. Txikitan begiak ixten zituen eta txiribitak ikusten zituen, puntu dirdiratsu harrapaezin horiek, alegia. Paralelismo bat egin zuen materialekin eta bere eraikitze moduarekin, eta txiribitak egiten hasi zen, eta

Mailu batekin eskultura «narras» bat txikitu eta haren hondakinetatik zenbait mundu berri eta fantasia sortzen hasi zen, hondakinak eta beste material batzuk harremanetan jarritz

«Bakoitzak modu batean bizi du egunerokotasuna. Mundua ikusteko nire prisma hemen islatuta dago. Hau ez da teoria bat, baizik eta nire bizitzaren luzapen bat, edo beste abar bat»

«ez supereskultore batek egin-go lukeen busto bat edo zera-mikazko obra bat». Berea hauskorra eta ezegonkorra dela dio.

Asko pentsatu zuen prozesu horretaz. «Ez dauka zentzu itxi bat, irudiak edo ideiak dira, batzuk elkartzen dira eta beste batzuk ez, eta elkartzen ez direnek bat-batean zentzua hartzen dute. Intuizioz jokatzu, gauzak agertzen dira».

Proiektu hau bidaia bat izan da Marinarentzat, eta gustatuko litzaioke publikoarentzat ere

hala izatea. Bertan eseri, entzun, ikusi edo lanen artean paseatzeko aukera dago. Bidaia batez ere begiradatik eta entzumenetik dator, baita ukimenetik ere, testura asko baitaude, askotariko materialak.

Marinak dioenez, prozesu guztiak ikas prozesuak dira, norberaren burua ezagutzekoak. «Ez da zerbait nahi edo gustuko dudalako bakarrik egitea, bada arrazoi bat, nahiz eta beharbada gero publikoak ez ikusi. Barne grina dago. Prozesu honen bitartez areago konturatu naiz nik erreparatzen dieran gauzek harreman zuzena dutela honekin. Bakoitzak modu batean bizi du egunerokotasuna, eta mundua ikusteko nire prisma hemen islatuta dago. Hau ez da teoria bat, baizik eta nire bizitzaren luzapen bat, edo beste abar bat», dio.

«Txikitatik argi izan dudan gauza bakarra da artista izan nahi nuela. Nik normalean ez ditut gauza guztiak argi-argi edukitzen», dio. Inoiz ez du ideia eta proiekturik falta, ordea. Ez dela samurra dio, kosta egiten dela: «Oso erraza da uni-bertsitatara joan eta ikasketak osatzea, baina, gero, zeure ideiak gauzatu nahi dituzunean, galdera asko datozkizu burura; esate baterako, non kokatzen zaren. Hori etengabeko galdera da». Leku hori bilatu beharra dagoela dio, eta dagoneko hamaika «salto» egin ditu: bideoa, pintura, dantza... Bere bidea egiten ari da.

Oraindik orain beste beka bat eman dio Bilbao Arte Fundazioak lanean jarraitzeko. Beraz, masterra bukatu eta uztailean Bilbora joango da sei hilabetez beste proiektu batean murgiltzeko. Txiribitak ez dituela harrrapatuko jakinda ere, ikusi eta erakusten jarraitzeko. •

Xabier Izaga Gonzalez